

Ahari itsua

H

itzak garbitzen saiatu behar du idazleak. Ados. Esanahi berriei deitura jartzten eta, batez ere, esanahi berriak sortzen. Lengoia zabal, unibertsal eta ireki bat helburu. Horretarako, desikastera gonbidatzen gaitu Ixiarrek. Eta, hemen, nire aitonaren esaera batekin gogoratu naiz: “Atzera pausurik ez eman behin ere; egiten duzula egiten duzularik ere, aurrera beti!”. Entzungo banindu, hitzok bereak direla aitortuko lukeen agure zaharrak zera zioen: “Mundu honetan inportanteena lehena izatea da; kaka egiten bada ere, baina lehena: txapela, txapela da”. Eta ondotik, Amezketarraren ahariarena kontatzea gustatzen zitzaion. Ba omen zeukan Fernandok ahari bat itsua zena. Topeka egitera eramaten zueanean, jartzten omen zuen aharia marraren aurrean eta aharia mugitzen ez. Orduan, aurkaria, Fernandoren aharia mugiarazteko eta marratik bestaldera botatzeko, atzeraka hasten omen zen. Zenbat eta atzerago, orduan eta indar handiago hartzeko. Baina Fernandoren aharia, itsuaz gain, zaharra eta zuhurra izan eta kieto. Amorrazioz, aurkariak, gero eta atzerago egite horretan, atzeko marra zapaldu eta apustua galdu egiten omen zuen.

Gertakizun honek ez dauka lengoia berriarekin zerikusirik. Baina bai atzera egitearen edo desikastearen ideiarekin. Askotxo gara ikasi dugunaz harro baino harroago gaudenak. Ahanzteko asmorik gabeak. Are gehiago, ikasi eta ikusi genuen hartan oinarritzen garenak, batez ere, aurrera egiteko.

Bada beste euskal idazle bat ere desikaste prozesuaz idatzi duena. Desikaste prozesuaren beharraz. Nahiz eta hark, tribu kontzeptuari aurre egiteko desikasi beharko genukeela azpimarratzen duen, eta gizarte berri eta orekatuago bat sortzen saiatu.



DANI BLANCO

Ana Urkiza

Padrón

Rozas

Ados nago bai, Ixiarrekin, zaila bada ere. Ez baikaude horretarako hezita. Eta oinarriari muzin egitea, gehiegitxo izan liteke, batez ere, hitzekin jolasteko ohiturarik ez dutentzat eta lengoia berriaren garbitasunean sinestea zaila gerta dakiekeenentzat.

Hitzari maiz lotzen zaion beste lengoia batean hitz egin duen asteburutik nator, ordea:

Andoaingo piano lehiaketatik. 800 gazte baino gehiagok parte hartu du bertan. Eta lengoia hitzuntzara pasatuko naiz: bi hitzuntza entzun nituen nik bertan: aurkezpenerako erabilitako euskara lehenengo eta ondoko gaztelaniaz gainera, musika bera, eta errespetua. Ez zegoen besterik. Gazteek musika nola interpretatzen duten entzutera joan ginen. Eta zera gertatu zen: batzuk hobeto besteak baino, denek ulertu zutela lengoia hartan interpretatzen saiatutakoa. Beste ezein lengoia gainera gainetik abiatu eta ibili ziren. Gure alabak lau eskutara jo zuen beste laguntxo batekin. Ondo pasatuta etorri zen, Legazpiko eta Gernikako laguntxo berriei beren helbide elektronikoa pasatuta. Brontzea atera zuten batzuek, urrea besteek. Berehala onartu zuten bai batzuek zein besteek, bakoitzaren maila eta neurria ezberdina zela. Lengoia berean hitz egin zuten, eta onartu.

Hauxe da, nire ustez, gure herri bipolar eta eskizofrenikoari falta zaiona. Lengoia bat asmatzea, zeinetan esperientzia berriak eta baikorrak biziko dituen. Baina esperientzia berri honek, aurrera begiratzeko izan

behar du. Desikastea da, hein batean, baina atzera begiratu beharrik gabe. Aurrera egiten ari zaren sentsazio garbiagoz.

Baliteke bipolaritatea aurrez aurre jartzeko eta inori ahari itsuaren papera egotzi gabe jokoan hasteko, belau-naldi gazteen lengoia berrietatik ikasi beharra izatea. ■

Hau da gure herri bipolar eta eskizofrenikoari falta zaiona.

Lengoia bat asmatzea, zeinetan esperientzia berriak eta baikorrak biziko dituen. Baina esperientzia berri honek, aurrera begiratzeko izan behar du. Desikastea da, hein

batean, baina atzera begiratu beharrik gabe